

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p><b>IL0070</b></p>	<p><b>Udalerriko elkarten eta klubaren erregistroa</b></p>
---	----------------------	--

## ZER DA? ZERTARAKO DA?

Amorebieta-Etxano udalerrian diharduten irabazteko asmorik gabeko kultura, kirol, gizarte, euskera... elkarteak eta klubak, elkarte-araubide espezifikorik gabeak, inskribatu ahal dira erregistro honetan.

Horrela, une oro eguneraturik eduki behar dituzten datuek eta dokumentazioak indarrean eta erabilgarri iraungo dute Amorebieta-Etxanoko Udalarri aurkezten dizkioten eskarietarako, jardueretarako, eta abarretarako.

Antolatzen eta gauzatzen dituzten jardueretan interesa duten pertsonetikiko harremanak errazteko xedez, hala nahi duten klubek eta elkarteek halaber, Amorebieta-Etxanoko Udalaren webgunean eta [www.ametx.eus](http://www.ametx.eus) webgunean euren gaineko informazioa agertzea eskatu ahal dute. Horrela bada, ondore horretarako atondu den inprimakia bete eta Amorebieta-Etxanoko Udalean erregistratuko dute.

## NORK ESKA DEZAKE?

Amorebieta-Etxano udalerrian diharduten irabazteko asmorik gabeko kultura, kirol, gizarte, euskera... elkarteak eta klubak, elkarte-araubide espezifikorik gabeak, inskribatu ahal dira erregistro honetan.

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E128 Udalerriko klubaren eta elkarten erregistroa](#)
- [E129 Elkartearen udal webgunean](#)
- Ordezkararen NAN.
- Elkartearen IFK.
- Elkartearen eratze dokumentua, organoen eta ordezkarien izendapenak dakartzana, dagokion erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta.
- Elkartearen estatutuak, dagokien erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta.
- Elkartearen aurkezpen-txostena, besteak beste honakoak bildurik bertara:
  - Datu orokorrak.
  - Ordezkariek eta harremanetan jartzeko bideak.
  - Jarduera-esparrua.
  - Elkartearen edo klubaren xedea.
  - Jarduera-programa.
  - ...

## NON ESKATZEN DA?

- **Aurrez aurre:**
  - [Udaletxea - HAZ](#)
  - Udaletxea
  - Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
  - Ordutegia: 7:30 - 15:00
- [Larrea kiroldegia](#)

---

Larrea kiroldegia  
Larrea z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

- [Zelaieta zentroa](#)  
Zelaieta zentroa  
Zelaieta parkea z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

**Telematikoki:**

- [Ametx-en web orrian](#)

## ZENBAT KOSTATZEN DA?

Amorebieta-Etxanoko Udalak bere gain hartuko du kudeaketa-lanen kostua.

## PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Zehaztu gabe  
Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: Zehaztu gabe  
Isiltasun-administratiboaren izaera: Aldekoa

## ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa](#)
- [7/2007 LEGEA, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa](#)

## ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa batu eta egiaztatu.
2. DAGokion udal zerbitzuak dokumentazioaren instrukzioa eta ikuskapena gauzatuko ditu.

## NORK ONARTU BEHAR DU?

Kultura eta kiroleko zinegotzia ordezkaria

## IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Kultura eta kirolak - Kultura

## OHARRAK